

Kutxabanken aplikazioak ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat eskuragarri daude

- **Autonomia osoa eskaintzen diete iOS zein Android sistemetako erabiltzaileei**

2022ko maiatzaren 2a. Kutxabanken bezero digitalen %80k mugikorraren bitartez egiten ditu ohiko banka-eragiketak, eta tartean daude ikusmen arazoak dituzten pertsonak.

Erakundeak irisgarritasunaren alde duen konpromisoaren baitan, Bankuak bere **mugikorreko aplikazioak** eguneratu ditu, ikusmen-urritasuna edo irisgarritasun arazoak dituzten pertsonak beren kontuak kudeatzeko autonomia osoa izan dezaten, Kutxabanken 'app'-aren eta mugikorrek daukaten teknologiaren laguntzaz.

Aurrerantzean, aplikazioa erabili ahal izango dute bai **iOS** sistema dutenek, dagoeneko martxan zegoena, bai berriki bateratu den **Android**-en erabiltzaileek ere. Konektatzeko, nahikoa izango da smartphone berak itsuentzako duen irisgarritasuneko atala aktibatzea.

KutxabankPay, telefonoetarako ordainketa-soluzio guztiak espazio bakarrean bateratzen dituen aplikazioa, jadanik itsuentzako eskuragarria zen, eta orain konexio baliabideak hobetu ditu.